

**AIXERROTA BHI EUSKARA SAILA HIZTEGIA — *Ibai arratoiak.* J. Cridhead. Desclée.**

| Hitza - Esanahia | Testuingurua | Orrialdea |
| --- | --- | --- |
| **zirimola**<br>'zurrunbiloa | «Harrez geroztik, Joeren bizitza jira-biraka zebilen **zirimola** nahaspilotsuetan.» | 47 |
| **osina**<br>'zulo sakona' | «Elves-en **osinera** iritsi ziren, eta hondartza hartan inor kanpaturik ez zegoenez, Joek baltsa lehorteratu zuen.» | 25 |
| **zumar**<br>'zuhaitz mota' | «"Tribuko batzarburua **zumar** handi horren ondoan bizi da", esan zuen Crowarrek alde hartara seinalatuz.» | 132 |
| **txunbera**<br>'zuhaiska' | «Sei musker jan ondoren, **txunbera** batera hurbildu eta, aurrean kuzkurturik, fruituak jaso zituen.» | 38 |
| **kitzikatu**<br>'zirikatu' | «Txokolateaen gozotasunak mutikoa **kitzikatu** zuen eta ezpainak atzera eraman zituen txakur moduko irribarrea erakutsiz.» | 48 |
| **xingola**<br>'zinta' | «Ilea finkatu eta **xingolaz** lotu zuen buru inguruan, geroago ez lardaskatzeko, eta Joeri esan zion kamiseta zirtzildua unai-praketan sartzeko.» | 138 |
| **zarpatsu**<br>'zarpailtsua, zikina' | «Buru **zarpatsuak** ez zuen ezer erantzun.» | 41 |
| **trostan**<br>'zaldien arineketa, galapan' | «Walter hesiaren gainetik salto egin eta **trostan** joan zen eskortan barrena, astoei abisuren bat emanez lurrean orpoaz joaz.» | 104 |
| **xanfarin**<br>'txoriburua, kaskarina' | «"Itxura ona daukazu", esan zion Crowbarrek. "**Xanfarin** hutsa zara".» | 139 |
| **txolota**<br>'txoleta, potea' | «Aizto zorroztuaz **txolota** gisa atondu zuen botilaren ipurdia, eta zuhaitz bati ebaki zion adar luzearen muturrari lotu zion.» | 102 |
| **pulunpaka**<br>'txipli-txapla' | «Joe ur hotzean **pulunpaka** ibili ondoren, plastikozko botila hartu eta edateko ur lohiaz betetzen aritu zen.» | 12 |
| **ñirrotu**<br>'txikitu' | «Joek begiak **ñirrotu** zituen bidexka ureztatuaren aldera begiratzeko...» | 10 |
| **atezuan**<br>'tentsioan, irekita' | «Hori esanda, alde egin zuen, burua tente, sudurzuloak **atezuan**.» | 18 |
| **txukatu**<br>'sikatu, lehortu' | «Joek txistu arina egin, eta ura **txukatzen** ihardun zuen.» | 20 |
| **xerloa**<br>'puskak' | Hatfield andereñoa mutikoengana hurbildu zenean, haizeak ile **xerloak** bihurritu eta aurpegian barreiatu zizkion, hazpegiaren gogortasuna bigunduz.» | 150 |
| **istingetan**<br>'potxongoetan, ur putzutxoetan' | «Hantxe segitu zuten barrez eta ostikoka **istingetan** sartuz.» | 139 |
| **ebatsi**<br>'ostu, lapurtu' | «Astoen azpian zebiltzan oiloek belar bihiak **ebasten** zizkieten, astoek jaten zuten bitartean.» | 132 |
| **putinka**<br>'ostikoka eta saltoka' | «Zaldi ederrak (...) zurdak astinduz eta **putinka** zebiltzan etxe ondoko eskorta zainduetan.» | 132 |
| **baurre**<br>'orroea' | «Ekaitza gainean **baurre** itzelean zebilen, Laba ur jauzien antzeko burrunba eginez.» | 150 |
| **aztala**<br>'orpoa' | « Joek arrauna probatu zuen **aztalaren** kontra joaz...» | 10 |
| **uherra**<br>'lohia, iluna' | «Joek airea eta ur **uherra** irentsi zituen, eta beherajoan zen.» | 53 |
| **xaramelatu**<br>'liluraturik' | «Hurrengo egunean hantxe zegoen Walter errotatxoari begira, guztiz **xaramelaturik**.» | 103 |
| **errezela**<br>'kortina' | «Urjauziek **errezela** zuri trinkoak egiten zituzten lurrera jaustean, arroila zilarrezko urjauzi zabala bilakatuz, eguzkipean distiratsu.» | 137 |
| **jade**<br>'kolore gardena duen substantzia' | «Supai herria Havasu errekak Horma Gorrian ebakitako landa berde **jadezkoan** kokatuta zegoen.» | 132 |





| Hitza - Esanahia | Testuingurua | Orrialdea |
|---|---|---|
| **barradera**<br>'kaia bezalakoa' | «Duela mila milioi urte izan zen erupzioa, eta barradera egin zuen ibaian.» | 43 |
| **kadira**<br>'jesarlekua' | «Harri bat sartu zitzaion **kadiran**.» | 39 |
| **oturuntza**<br>'janaldia' | «"Ez naiz gose. Uste dut paso egingo dudlaa **oturuntzaz**", esan zion.» | 47 |
| **arrailera**<br>'irekidura sakona' | ‹Bidexka bat aurkitu zuen, **arrailera** egiten zuena, eta aldi luzez irtenbidea aztertzen egon zen.» | 152 |
| **laxoa**<br>'irekia, zabala' | «Sarea **laxoegia** da.» | 97 |
| **neon**<br>'iragarkietako argi distiratsua' | «Kasino eta nightclub hura **neonezko** kasino-zerrendan kokatuta zegoen.» | 19 |
| **herenil**<br>'ileguria, tertziopeloa' | «**Herenilezko** gortina gorriek leihoa estalita daukate, eta begiak gelako argi txikira egokitu orduko, emakume adintsu bat ikusi dut...» | 29 |
| **malgortu**<br>'hotzez gogortu' | «Ur hotzetan oinak **malgortuko** litzaizkioke.» | 41 |
| **eskorta**<br>'hesia' | «Walter hesiaren gainetik salto egin eta trostan joan zen **eskortan** barrena, astoei abisuren bat emanez lurrean orpoaz joaz.» | 104 |
| **txintxarra**<br>'harritxo solteak' | «Oinotsak aditu zituzten arroilaren behealdeko harri **txintxarretan**.» | 38 |
| **hankalatraba**<br>'hankalepo, hankak zabalik' | «"**Hankalatraba** eserita gidatu behar du, uhalei atxikita" esan zuen Crowbarrek, egur puska aztertuz.» | 40 |
| **kuxinatu**<br>'goxo-goxo jarri, maitakor' | «"Kuxinatu" esan zion Joek. "Kuxinatzen ari zara".» | 83 |
| **bihiak**<br>'garauak, aleak' | «Astoen azpian zebiltzan oiloek belar **bihiak** ebasten zizkieten, astoek jaten zuten bitartean.» | 132 |
| **bermatu**<br>'finkatu, sostengatu' | «Joe hesian **bermatu** eta begira-begira geratu zitzaien bi gatibuei.» | 104 |
| **ostendu**<br>'ezkutatu' | «Astemeak irrist egin zuen aldaparen azken tartea gainditzean, eta arroilaren goialdetik **ostendu** zen.» | 111 |
| **esekia**<br>'eskegita' | «Zubi **esekia**.» | 16 |
| **setati**<br>'egosgogorra, terkoa' | «Euria hasi zuen (...), baina Walterrek oinetik heldu zion **setati**. » | 137 |
| **unai-prakak**<br>'behitzainen prakak' | ‹Ilea finkatu eta xingolaz lotu zuen buru inguruan, geroago ez lardaskatzeko, eta Joeri esan zion kamiseta zirtzildua **unai-praketan** sartzeko.» | 138 |
| **almadia**<br>'baltsa' | «Egurrezko pieza flotagarria besterik ez zen, **almadia** handiak sustengatzen dituzten oholak elkarri lotu eta gainean jartzen diren pieza bi horietako bat.» | 40 |
| **kalaka**<br>'astrapala, zarata handia' | «Ibai zolan bueltaka aritzean harriek egiten zuten **kalaka** eta burrunba entzun zuen Joek.» | 20 |
| **pitzadura**<br>'arrakala' | «**Pitzadura** ez zen uste bezain txarra.» | 10 |
| **galapan**<br>'arineketan' | «Astakumea atzetik joan zitzaion **galapan**.» | 111 |
| **zalu**<br>'arin' | «Biluzik zegoen, eta **zalu** zebilen, katu antzean.» | 38 |
| **aztarrikatu**<br>'arakatu' | «Ur putzuaren mutur batetik hasita, Joe inguruko lurra **aztarrikatzen** hasi zen atzetik hara ...» | 58 |





| Hitza - Esanahia | Testuingurua | Orrialdea |
|---|---|---|
| **alfalfa**<br>‘animalientzako janaria, belarra' | «Errekak herriko **alfalfa** zelai eta artasoro handiak ureztatzen zituen bere joanaldian...» | 133 |
| **zarpa**<br>‘alkandora' | «Walterrek geldiarazita zirudieb, sorbaldetetik belaunetaraino heltzen zitzaion **zarpa** lokaztuari begira.» | 139 |